

ILE-LEHORGAILUA

Gu Urretxu-Zumarraga ikastolako 1.Batxilergoko ikasleak gara, Ekonomia ikasgaiari lanean ari garenak. Gure taldea "myme" izena du eta gure proiektua ile-lehorgailu isila da. Atal honen bidez, gure produktua zer den, zergatik eta non ikusi dugun honen beharra, ze oztopo dagoen gizartean lehorgailu "normalekin"... azalduko dugu.

Errazago egiteko adibide baten bidez azalduko dugu. Imaginatu ama bat, goizero isilean jaikitzen dena, lanean edo egunerokoan ondo hasteko prestatzeko. Familia osoa oraindik lo dago, eta etxea lasai-lasai dago. Baina ile-lehorgailua pizten duen unean, aparatuaren zaratak isiltasuna hautsi egiten du: semea esnatzen da, bikotekideak kexu egiten du, eta hark, egoerak behartuta, ilea presaka lehortu behar izaten du, inor gehiago ez aztoratzeko. Horren ondorioz, sarritan ez du lortzen bere gustuko emaitza, denbora faltagatik eta estutasunagatik.



Egoera hori oso ezaguna da goizetan beren denbora propioa hartu nahi dutenentzat. Horregatik sortu dugu gure ile-lehorgailu isila: erabiltzailearentzat askoz erosoagoa



delako, eta bitartean musika entzun, norbaitekin hitz egin edo, besterik gabe, lasai egoteko aukera ematen duelako. Aldi berean, goiz-goizetan norbaitek ilea lehortu behar badu, amaren adibidean bezala, ez du zaratarik sortuko; horrela, etxean daudenak, lotan egon edo ikasten, eta ez dira haserretuko.

Gainera, gure ile-lehorgailu isila ez dago bakarrik pisu partekatuetarako pentsatuta, baita ere ile-apaindegietan.